

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak “Emakume langile publikoen ahalduntzea” eta Hezkuntzako LHren Zerbitzuko langileendako beste ikastaro bat antolatu ditu bere profesionalei berdintasunari buruzko formakuntza emateko

*Formakuntza ekintzak genero berdintasuna politika publikoetan aplikatzeko Formakuntza Ibilbideari atxikita daude*

Osteguna, 2019.eko martxoak 28

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren (NABI) bitartez, bi formakuntza ikastaro berri hasi ditu aste honetan Foru Komunitatearen

Administrazioko langileentzat: bata, “Emakume langile publikoen ahalduntzea” deritzona, eta bestea, “Genero ikuspegia hezkuntzako politika sektorialetan” izenburukoa,

Lanbide Heziketaren Zerbitzuko profesionalei zuzendutakoa. Bi formakuntza ekintza hauek [“Genero berdintasuna politika publikoetan aplikatzeko Formakuntza Ibilbideari”](#) atxikita daude.



Gaur goizean emandako ikastaroa.

Ahalduntze ikastaroan, NABIri atxikitako 17 emakume langile publikok parte hartu dute, baita Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioko Berdintasun Unitateetan dauden beste emakume batzuek ere. Formakuntzak 10 orduko iraupena du 2 saiotan banatuta: lehenengoa, joan den asteartean, eta bigarrena, heldu den ostiralean.

Administrazioko emakume langileen ahalduntze pertsonal eta kolektiboa lortzen eta haien parte-hartze sozial eta politikoa bultzatzen laguntzeko ariketatzat diseinatu da.

Nazioarteko hainbat tresnatan jaso den bezala, emakumeen ahalduntzea ezinbestekoa da genero berdintasuna eraikitzeko, eta Garapen Iraunkorraren aldeko 2030eko Agendan bildutako helburua ez ezik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako nahitaezko baldintza bihurtu da Beijingo Emakumeari buruzko Nazioarteko Konferentzian (1995) ezarritakoaren harira.

Ikastaro honen bitartez, parte-hartzaileen kontzientzia indibidual nahiz kolektiboa sustatu nahi da, generoari buruzko desberdintasunek eta diskriminazioek nola eragiten dieten kontura daitezen, haien ahalduntze

personala eta kolektiboa bultzatzen den bitartean. Bertan, zehatz-mehatz aztertuko dute zer den emakumeen ahalduntzea, zergatik beharreako den, eta hori lortzeko moduak emango dituzte ezagutzera, parte-hartze sozial eta politikoaren garrantzia nabarmenduz.

Formakuntza ekintza Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen Parte-Hartze Sozial eta Politikoa bultzatzeko 2018-2020ko [Estrategiarekin](#) lerrokatuta dago, emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa oztopatzen jarraitzen duten genero-baldintzapenak gainditzeko eta, ahalduntzearen bitartez, emakume profesionalakiko lidergo berriak sustatzeko administrazioaren barnean.

Ikastaro hau Nafarroako Gobernuak NABIren bitartez genero berdintasuna politika publikoetan txertatzeko bultzatu duen Formakuntza Ibilbideari atxikita antolatu da. Tresna berritzaile honi esker, Administrazioako langileek pixkanaka-pixkanaka baina etenik gabe, berdintasuna zeharkako balioztat bermatzea ahalbidetuko dien gaikuntza hartzen ari dira.

### **Genero ikuspegia hezkuntzan**

Bigarren formakuntza ikastaroa, "Genero ikuspegia hezkuntzako politika sektorialetan" aztergai zuena, Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketaren Zerbitzuko profesionalak zuzenduta antolatu da, hezkuntza esparruan dauden berdintasunari buruzko berriak arauak ezagutzeko, debesdintasunik eta diskriminaziorik garrantzitsuenak nahiz horiek eragiten dituzten faktoreak zehazteko eta hezkuntzako politika jakin batean (kasu honetan, lanbide heziketan) genero ikuspegia txertatzeko gauza izan daitezten. Horretarako, aurtengo ikasturtean, Lanbide Heziketako 2017-2020ko Plan Estrategikoa genero ikuspegiaren arabera berrikusiko da, emakume eta gizonen gaineko inpaktu positiboa lortzeko sartu beharreko aldaketak zehaztu ahal izateko.

Formakuntza hau ostegun honetan hasi da eta 15 ordu izanen ditu guztira, Hezkuntza Departamentuan bertan antolatuko diren hiru saiotan banatuta. Aurreko ikastaroa bezalaxe, genero berdintasuna politika publikoetan aplikatzeko Formakuntza Ibilbideari atxikita dago.

Ikastaro hau hirugarren formakuntza mailari dagokio, eta bertan politika publikoen eduki sektorialeko buruzko ikasgaiak lantzen dira; kasu honetan, hezkuntzari buruzkoak. Ikastaro honetan parte hartzeko, nahitaezkoa da aurretik oinarrizko maila egina izatea, genero zeharkakotasunari buruzko edukiak barne, ezinbestekoa baita gainerako mailetara igo ahal izateko.

Bi formakuntzak Gobernuak otsailaren 27ko bilkuran onartutako [Foru Komunitatearen Administrazioako 2019ko V. Berdintasun Planean](#) bilduta daude.